

hain zara eder - fito rodriguez



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

FITO RODRIGUEZ

hain zara eder

Hitzaurrea: Andoni Tolosa

AURKIBIDEA

Rockero zaharrak

Joe Cocker

Summer in the city

Ene adiskideen laguntza pixka batez

Nire aitaren kanta niretzat

Gau deiak

N'Oubliez Jamais

Goian gaude igotzen

Nire maitea izan zintezke

Ez nazazu maite

Gau hotza etorri da

Sorry

Barkatu hitzik zailena baita

Orain magia joan da

Gauean Grazia Galdutako Gizakia

Kateak askatu nire bihotzari

Gauza sinpleak

Rockero zaharrak

Zein zen Fitorekin zegoen tipo txiki ilezuria? Galdera egin du Egiako Kata tabernan, ustekabeen, topatu zituenak. Inork ez daki oso ongi azaltzen, batzuek aipatu dute, adibidez, keinu bitxiak egiten zituela hitz egiterakoan, gorputza okertzen zuela, bizkarrak altxatu, gora begiratu... kantatzen arituko balitz bezala. Beste batzuek zehaztu dute, ez zuela oso itxura ona, bizarra egin gabea, begi handien tamaina bereko zuloak, aurpegia zimurrek ondo goldatua... Baten batek, gaineratu du, ez dakiela zer edaten ari ziren, baina barre arraroak egiten zituztela, bai batak zein besteak, susmoari atek zabaltzeko adina. Hari horretatik tiraka, gehienei ez zien harritu Fito horrelako konpainia "xelebreekin" (horretan ados zeuden denok) nahastuta ikusteak, eta beraz, ez zitzaizela deigarria gertatu biak ingelesez kantari hasi zirenean; You are so beautiful... edo antzeko zerbait. Horrela aritu ziren tarte batean, ikerketarako datuak bildu eta gertatutakoaren bertsio sinesgarria eraikitzen. Hipotesiak egitearen ezinbesteko atarikoak; nola bukatuko ote zuten? Non, norekin? Zertan? Azken datuak zioen Ametzagana kaletik behera ikusi zituztela bizkarretik helduta ozen kantari. Gehiegi desafinatu gabe oraindik, gaineratu du kalez-kale kantarin aritzen denak. Ez dago gaizki uda gau baterako, ohikotasunetik kanpoko edozeren egarri gaudelako. Egia auzoa da, eta badakizu auzoetan zer gertatzen den. Orduan iritsi da musikazaleena, aztoratua bezala, informazio garrantzitsuren bat konpartitzeko premia: "Aizue, ba al dakizue atzo Joe Cocker ibili zela auzoan?"

Akabaramos! Horixe zen dena, bi rockero zahar, aspaldiko adiskidetasuna ospatzen, birgogoratzen, gozatzen. Zeren eta, inork ezin badu jarri zalantzan Joe Cocker rockero zaharra zenik, are gutxiago Fito (Rodriguez Bornaetxea). Horregatik ez zidan gehiegi harritu tfnoz deitu eta, bere ohiko abiaduran, azkar,

esan zidanean Joe Cockerren kantuekin zerbait egin zuela. Ez nion oso ongi ulertu kantuen itzulpena zen ala ez, baina egindakoa irakurritakoan laster batean ohartu nintzen, askoz ere gehiago zegoela testu-bilduma horretan. Kantu horien berrirakurketa eguneratua, dela Hain zara eder hau. Idazlearentzat esanguratsuak gertatzen diren “ereserki” horiek bereganatu eta besteontzat, bere ikuspuntuaren arabera berrerabilgarri jartzeko modua. Ingurua zalantzan jarri eta galde egiteko premia. Desobeditzeko beharra.

Generoa zein den? Kantua, argi eta garbi, ez litzateke erabat justua poesiak direla esatea, iruditzen baitzait idazleak interes berezia eduki duela kantu-izaera hori mantentzen, tentazio “literarioagoei” muzin eginez. Adibidez, gaua, hiria, maitasuna (molde rockeroan, jakina, gehiegi ala gutxiegi), adiskidetasuna, askatasuna... dira gai nagusiak. Oso molde zuzenean idatzitako testuak dira, oso eguneroko hizkuntzan eta, gehienetan, lelo kantagarria dutenak, rock kantu baterako osagai ohikoak. Alde horretatik, estimatzekoa da Fitoren ekarpena, liburu formatuan, gurean, gutxitan landu den lurraldean dabilelako, rocka eta hitzen arteko harremana ezagutzak ematen duen konfiantzarekin irakurriz, gainera. Eduki beza gogoan irakurleak, beraz, bazegoela kantu hauek gehiago elaboratzerik, hizkuntza zainduagora ekartzerik, amarru literario gehiago erabiltzerik, baina idazleak horretarako gaitasuna izanda ere, generoaren urgentzia, ustezko soiltasun eta parametro kaletarren alde egin duela. Estimatzeko moduko erabakia, inondik inora.

Rockero zaharrak odolean daramalako rocka, eta rockeroak ez direlako sekula jubilatzen.

Andoni Tolosa

Joe Cocker

You are so beautiful
Niretzako
Hain ederra izan zara

You are so beautiful

Hain zara eder
Zu Joe Cocker
Ezin zinela horretaz ohartu
Baina espero nuen guztia izan zara
Behar nuen guztia izan zara
Agur oroher

Joe Cocker
Niretzat hain ederra
You are so beautiful
Niretzat hain ederra
Ezin zinela horretaz ohartu
Espero nuen guztia izan zara
Pertsona bakoitza izan zara

Behar nuen guztia
Niretzat ederra izan zara

Zantarra izanda ere

Maketsa izan arren

Eman didazunagatik

Hain zara ederra

Summer in the city

Hiriko uda hiri beroan
Berriro lepoa zikin eta izerditsu
Goitik behera blai

Eta hori ez da penagarriena
Ez dirudi itzal bat denik hirian
Ezta inguruan ere,

Jendeak erdi hila dirudi
Espaloian jokoa gero eta beroago dabil
Baina gauez mundua desberdina da
Atera zaitetz eta aurki ezazu lagun bat
Etorri hona eta gau guztia dantzatu
Bero egonda ere ondo egongo da
Eta pena zer den ez duzu jakingo
Egunak gauak balira bezala ezin direlako bizi
Hirian udan
Uda hirian

Hiria iluntzean hoztu
Primeran jantzi eta itxura polita hartu
Hozterakoan lagun bat bilatu
Hiriaren ertz bakoitzean begiratu
Ni geraleku bat bezala har

Arnasa nekez hartu arte
Zu topatu

Eta Joe kantuz

Eta korrika egin gora
Gauez mundua desberdina baita
Atera zaitetz eta aurki ezazu lagun bat

Etorri hona eta gau guztia dantzatu
Bero egonda ere ondo egongo da
Eta pena zer den ez duzu jakingo
Egunak gauak balira bezala ezin direlako bizi
Hirian udan
Udan hirian
Hiriko uda hiri beroa
Berriro lepoa zikin eta izerditsu
Goitik behera blai

Eta hori ez da penagarria
Ez dirudi itzal bat denik hirian

Inguruko jendeak erdi hila dirudi
Espaloian jokoa gero eta beroago dabil

Eta Joe kantuz
Gauetz mundua desberdina baita
Atera zaitetz eta aurki ezazu lagun bat
Etorri hona eta gau guztia kantatu
Beroa egonda ere ondo egongo da
Eta pena zer den ez duzu jakingo
Egunak gauak balira bezala ezin direlako bizi
Hirian udan
Udan hirian

Hain zara eder

Ene adiskideen laguntza pixka batez

Zer uste duzu emango zukeenik afinatu gabeko kanta kantatzeak?
zutituko zinateke eta utziko nindukezu?

With a Little Help from My Friends

Utzi niri zure belarriak eta kanta bat kantatuko dizut zuri

Beltzen kanta bat

Blues edo soul

Ni zuria izan arren

Eta notez kanpo ez kantatzen saiatuko naiz

Beatlesak nire adiskideak badira ere ez baitut haiek bezala desafinatzen

Bai ene adiskideen laguntza pixka batez konponduko naiz

Altu abesten dut ene adiskideen laguntza pixka batez

Bai ene adiskideen laguntza pixka batez konponduko naiz

probatuz eta probatuz

Joe Cockerek egiten zuena egin nahian

Hain zara eder

Zer egingo dut nire maitea kanpoan dagoenean

Ni bakarrik egoteaz kezkatuko al da?

Nola egongo naiz egunaren amaieran

Gau beroan

Tristatuko naiz

Goibelduko zara iluntzean?

Ez ene adiskideen laguntza izanda

Bai ene adiskideen laguntza pixka batez konponduko naiz

Altu abesten dut ene adiskideen laguntza pixka batez

Bai ene adiskideen laguntza pixka batez konponduko naiz

Probatuz eta probatuz

Norbaitek maitatzea behar dut

Halere edonor izan liteke

Norbaitek maitatzea nahi dudalako

Maitasun batean sinetsiko zenuke ezagutuz gero

Bai toki guztietan gertatzen dela seguru naiz

Ezer ez baita ikusten argia joaterakoan

Ilunabarrean

Eta ezin dut esan zuk baina nik hirietako gau beroak maite ditut

Ez ene adiskideen laguntzarik gabe

Bai ene adiskideen laguntza pixka batez konponduko naiz

Altu abesten dut ene lagunengandiko laguntza pixka batez

Bai ene adiskideen laguntza pixka batez konponduko naiz

Edonor behar baduzu

Norbaitek maitatzea behar dut soilik

Edonor izan liteke

Norbaitek maitatzea nahi dut

Eta ez da zurikeria

Joe Cocker zuria zen

Baina beltz batek bezala kantatzen zuen

Eta ezin dut esan zuk baina nik hirietako gau beroak maite ditut

Ez ene adiskideen laguntzarik gabe

Bai ene adiskideen laguntza pixka batez konponduko naiz

Nire aitaren kanta niretzat

Nire aitarentzako dut kanta txiki hau

Berak egiten zuen dena

Egin zezakeelako egiten zuen

Nik kantatzen nuen bitartean

Ez doinuz ezta errimaz ere aritzen zen

Horrelakoak dira bere oroitzapenak

Orain garaiaz pasata egonda ere

Beraren funtsa argi ikusteko gauza ez izan arren

Badakit

Nire iritzia asmatzeko sena bazuela

Nire bihotzak zioena igarri egiten zuela

Eta leku berezia daukat harentzat

Egiarik gabeko mundu honetan

Non buruak makurtzen ditugun amen eginez

Zeinean egun bakoitza Aitaren Eguna den

Aitaren batean

Aita gurea gogoan

Berrikus ditzagun aitaren esanahi guztiak

Guretzat balio ez dutenak bereziki

Aita gurea eta Aitaren eguna ere

Baina sakrifikatutako aita zerbait bada niretzat

Dena ematen erakutsi zidalako bere zurruntasunak

Eta bera gogoan bere biografiaz

Harro egon ez arren

Kanta hau kantatu nahi diot

My father song for my

Gau deiak

Gau taldea lan egiten hasi zen
Hegoaldeko bidetik
Eta ikusten nuenen
Pentsatzen jarri nintzen
Eta ezerezetik begiratu nuen
Inor ez zegoen
Laguntza emateko prest
Egoera gainditzeko
Gau deiak horretarako dira

Gau deiak
Egin gau deiak
Gau deiak
Egin gau deiak

Ez ohi dira iritzi gogorregiak elkartrukatzeko
Azkar mugitzeko baizik
Ez dira izaten lehenaldian bizitzeko
Errazak ez direla badakigu
Eta ilutasuna ahultzen hasten denean
Eserita non-nahi
Goizaren freskotasunaren zain
Egin ez nituen planei buruz pentsatuz

Gau deiak daude
Egin beharreko gau deiak
Edota Joe Cocker entzun

N'Oubliez Jamais

Maitea zergatik entzun behar dituzu

Kanta zahar guztiak?

Zergatik kantatzen dituzu betiko doinuez?

Eta halaber kalearen amaieran

Zerbait pasatzen ote den

Ohartu ez

Doinu berriak daude

Eta kanta berriak

Hark esaten zuen:

Nire bizitzan, hainbeste amorru egon da

Ezen ez naizela ezertaz damutzen

Non rien de rien non je ne regrette rien

Ni hain bihurria nintzena

Ene berezko barruko kanta

Ez dezadan inoiz ahantz

Ez dezadan inoiz ahantz

Nire aitari entzun nion esaten

Belaunaldi bakoitzak bere bidea duela

Desobeditzeko beharra

Ez dezadan inoiz ahantz

Norberaren norabidea ez dela patuan dagoena

Desadostasunean egoteko beharrak

Bizi gaitu

Hain da eder

Arauk bide erdian sartzen direnean

Desobeditzeko beharra

Ez dezazuen inoiz ahantz

Maitea, zergatik kantatzen duzu

kanta zahar bera?

Zergatik kantatzen duzu

doinua soilik

Kalean zerbait pasatzen ote den

Ohartu ez

Doinu berriak daude

Eta kanta berriak

Hark esan zuen:

Nire bihotzean gaztetxo baten pasioa dago

Betiko dua egiteko pronto

Egunen batean, laster
Norbaiten irribarreak jarraituko zaitu

Gaueko ordu txikitan
Zure berezko barruko kanta

Ez dezazun inoiz ahantz

Ez dezazun inoiz ahantz
Nire aitari entzun nion esaten
Belaunaldi bakoitzak bere bidea duela
Desobeditzeko beharra

Ez dezazun inoiz ahantz
Zure norabidea ez dagoela patuan
Desadostasunean egoteko beharra
Arauk bide erdian sartzen direnean
Ez dezazun inoiz ahantz

Zer den joko hau
Maitasuna edo ulermena bilatuz?
Dena bat eta bera al da?
Egun hauetako batean maitasuna sendaketa dela diozu
Ez nago seguru

Baina hain litzateke eder

Ez dezazun inoiz ahantz

Nire aitari entzun nion esaten

Belaunaldi bakoitzak bere bidea duela

Desobeditzeko beharra

N'Oubliez Jamais

Goian gaude igotzen

Nork daki zer etorriko den bihar
Mundu honetan bihotz gutxik bizirik dirau
Ezagutzen dudan guztia sentitzen dudana da
Benetakoa denean mantentzen naiz bizirik
Bidea luzea izaten da
Mendi malkartsuak gure bidean daude
Baina maila bat igotzen dugu egunero
Maitasunera igoz
Non arranoek negar egiten duten
Maitasunaren mendia oso altu baitago
Up where we belong
Mundutik urrun
Mendiko tontorretik gertu
Goian, non haizeek putz egiten duten
Eta argiak gogor jotzen duen

Batzuek usten dute bideari jarraitu behar zaiola

Mendian ere arauak daudela

Maitasunean adostasunak agintzen duela

Ez dezazun inoiz ahantz

Bidezidor bakoitzak hautu bat duela

Eta desobeditzeko beharra

Hain da ederra

Bizi gaitezen norbera bere bizitza

Atzera begiratu gabe

Dugun guztia hemen eta oraina da

Gure bizitza guztiak berdinak iruditu arren

Bidea luzea da

Mendi malkartsuak gure bidean daude

Baina maila bat igotzen dugu egunero

Maitasunera igoz

Non arranoek negar egiten duten

Maitasunaren mendia oso altu baitago

Up where we belong

Mundutik urrun

Denbora pasatzen da

Eta negar egiteko une bat ere ez dago

Biok

Bizirik gaur

Goian

Eta maila bat igotzen dugu egunero

Maitasunera igoz

Non arranoek negar egiten duten

Maitasunaren mendia oso altu baitago

Up where we belong

Mundutik urrun

Nire maitea izan zintezke

Maite ahal izango zenuke?

Edo behintzat probatu?

Ez dakit

Nitaz iritzi bat duzu jada

Beraz infernura joan zaitetz eta pentsatzen ari zarena ahantz

Ez duzu arrazoirik

Maitasunak ez baititu aurreiritzirik

Maitasunak ez gintuzke inoiz utziko bakarrik

Iluntasuna etorrita argia pizten da

Maite ahal izango zenuke?

Edo maitatua izan bederen?

Utziko nauzu zure loa zaintzen?

Bizitzaren bidea malkartsua eta harritsu da

Eta estropezu egin dezakezu

Baina zure hatzak seinalatzen duenean beste norbait epaitzen ari zara

Maite ezazu zurea bezalakoa

Ez iezaiezu utz zu aldatzen

Jarrerak berez higitzen baitira

Bizitzeko bizi bat dugu

Diotenez bat bakarrik

Bakarrik den horretan egokienak soilik ezin du bizirik iraun

Egon zaitez bizirik

Maite ahal izango zenuke?

Ez galdu ura zure putzua lehortu arteraino

Berriro ez baita inoiz beteko

Esan ezazu zerbait!

Maite ahal izango zenuke?

Edo maitatua izan bederen?

Utziko nauzu zure loa zaintzen?

Esan ezazu zerbait

Hain zara eder

Ez nazazu maite

Irribarre egiten ikusiko zintudala uste nuen
Atean sartu nintzenean
Zure besoak zabalik izango nituzkeela zain
Lehen ziren moduan
Zergatik begiratzen nauzu orain
Ezezaguna banintz bezala
Zergatik urruntzen zara
Hain estutzat hartzen ohi ninduzuena

Ez nazazu maite gehiago
Ikasia duzu zure bizitza ni gabe bizitzen
Ez nazazu maite gehiago
Noiz iraungi zen sua?
Nora joan zen sentimendua?
Kanpoan nengoenean amildu zen dena
Laztana etxera etorri naiz
Betiko maiteko ninduzula uste nuen
Zain egongo zinela seguru nengoen
Nire beharra izango zenukeela uste nuen
Horrela ez zenuela ebatziko

Ez nazazu maite gehiago

Zure bizitza ni gabe bizitzen ikasi ezazu

Ez nazazu maite gehiago

Maitea

Noiz iraungi zen sua?

Nora joan zen sentimendua?

Zergatik urrundu zara?

Hain hurbileko zinena laztantzat hartzen ninduzunean

Azkarregi joan zara

Gaueko deiei erantzun gabe

Iluntasunean zuria zara

Ez nazazu maite gehiago

Baduzu zure bizitza ni gabe bizitzerik

Ikasi ezazu

Eta ez nazazu maite gehiago

Gau hotza etorri da

Euts ezazu

Zuregana itzuliko naiz

Ez da luzea izango

Beste zerbait badago ere

Eta nik ezetz esan arren

Har nazazu zure bide berean

Seinala nazazu ekialderantz eta utz iezadazu joaten

Maleta hau kargatuta dago

Oroitzapenez

Egiten duzuna egin nahi dut bakarrik

Zarena izan nahi dut soilik

Zuretzat egon nahi dut doi-doi

Gau hotza datorrenean

Kezka guztiak jar ditzagun atzean

Eta joango gara inoiz aurkituko ez gaituzten tokira

Hor zure ondoan egon nahi dut bakarrik

Gau hotza datorrenean

Gau hotsa datorrenean

Gaueko bi espirituok elkaturik

Goiz argiari begira esnatzeko prest

Uzten ez dena ez dago inoiz galtzerik

Beldurrik ez izateko baztertzen dena

Beldurragatik galtzen da

Eta ezer ez da utzi beldurrik ez izateko

Hori ikasi dut hiriaren ertzean

Ez dut eduki inor itxaroten inguruan

Eta biok entzungo dugu

Bryan Adamsen When the Night Come

Joek abestuta
Hemendik kanpo gau hotsa baita

Gau hotzean

Egiten duzuna egin nahi dut bakarrik
Zarena izan nahi dut soilik
Zuretzat egon nahi dut doi-doitik
Gau hotza datorrenean
Kezka guztiak jar ditzagun atzean
Eta joango gara inoiz aurkituko ez gaituzten tokira
Hor zure ondoan egon nahi dut bakarrik
Gau hotza datorrenean
Gau hotsa datorrenean

Guretzako denbora egongo dela badakit
Har ezazu nire eskua ihes egin dezagun
Pentsa ezazu hondatutako amets guztiei buruz
Egunen batean uler ditzagun elkarrekin
Itzultzen ari gara
Elkarrekin egoteko itzuli
Gau hotza datorrenean

Eta biok entzungo dugu

Bryan Adamsen When the Night Come

Joek abestuta
Hemendik kanpo gau hotsa aditzen da
Gau hotzean

Gau hotza datorrenean
Gaua irristatzen denean
Gau hotsa datorrenean
Zurekin egon nahi dut

Zure ondoan

Gau hotza datorrenean

Gau hotsa datorrenean

Ez egin hori adiskide

Inoiz gaualdia hona heldu denean

Gaua datorrenean

Gaua datorrenean

Bryan Adamsen When the Night Come

Joek abestuta entzun

Eta maite nazazu

Nik kontrakoa esan arren

Sorry

Zu joanda nire zintzotasuna kolokan jartzea lortu duzu
Probatu arren ez naiz ondo moldatzen apologia egiten
Garaiz kanpo ez naizela geratuko espero dut

Norbaitek epaile bati hots egingo al dio?

Barkamenari tiro eginda hobeto nengoke

Kutxen hotsak zabaldu nituela badakit eta agian behin baino gehiago

Behin baino gehiago esatean hamaika aldiz esan nahi dut

Hau ez da Justin Bieber abestia

White Hinterlanden 'Ring The Bell' baizik

Nire burua gaur gauean berrerosi beharrean

Askatasuna erosten den modu berean

Bigarren aukera emanda tiro egingo dut

Beranduegi al da orain barkatu esateko?

Nigmatik zure gorputza baino gehiago galdu dut

Ez naizelako sinesgarria

Nire maitasuna plagioa da

Beraz beranduegi al da orain barkatu esateko?

Bai iruzur zaitudala badakit

Baina beranduegi al da orain barkatu esateko?

Barkatu

Bai iruzur egin zaitudala badakit

Beranduegi al da orain barkatu esateko?

Erruaren puska guztiak hartuko ditut maite banauzu

Errugabekorik bitarako joko honetan ez dagoela badakizu

Joango naiz ondoren zoaz zu eta egia esango dizut

Agian

Gure hitzak iruzur zirela ahazteko

Beranduegi al da orain barkatu esateko?

Nigatik zure gorputza baino gehiago galdu dut

Beranduegi al da orain barkatu esateko?

Bai iruzur zaitudala badakit

Beranduegi al da orain barkatu esateko?

Kanpaiak jo du eta erantzun du jada

Barkatu hitzik zailena baita

Elton Johnek Sorry Seems to Be the Hardest Word

abestia idatzi arren Joe Cockeren bertsioa da nirea

Zeinena da kantua inork kantatzen ez badu?

Zer egitera helduko naiz zuk ni maitatzeko?

Zer egitera helduko naiz zuk ni maitatzeko?

Zeinena da kantua inork kantatzen ez badu?

Zer egingo dut tximistak jo ezkeror?

Eta galdu zaitudala amesten dudanean?

Zer egitera helduko naiz zuk ni maitatzeko?

Zer egitera helduko naiz zure kanta entzuteko?

Zer esango dut dena bukatzen denean?

Barkatu hitzik zailena delakoan

Triste hain da triste

Eta hain zara eder

Egoera hitsa eta hitzik ez

Barkatu esaten ikasi ez dudalako

Eta gero eta zentzugabeago da dena

Zeinena da kantua inork kantatzen ez badu?

Ezin dugu hitz egin zergatik?

Nire irudiz

Barkatu hitzik zailena delako

Barkatu

Kantatzen den kanta aditzen duenaren da

Izatekotan

Orain magia joan da

Nire bizitzan nahigabea eta samina ikusita dauzkat

Eta horretaz abestu dut

Eguzkiak erre nau

Itota geratu naiz euripean

Agian maitale gehiegi eduki dut baina maitasun nahiko ez

Epaitu naute eta kondenatu naute

Errudun naizen gauzetan bederen

Kartzela batean itxita nengoen zu etorri arte

Askatu ninduten baina ez dohainik

Nik horretaz abesteko

Nola esan dezakezu laztana ez zarela ona niretzat?

Orain magia joan da

Hain ederra zena urtu egin da

Alde egin nahi duzu

Ezer esan gabe

Orain magia joan da,

Sentimenduari eutsita ere ez dago ezer

Laztana orain magia joan da

Baina abesten segi dezaket

Maitasuna samurra izan daitekeela banekien

Orain maitasuna krudela izan daitekeela badakit

Aingeru bat bezala irribarre egin dezake

Ergel bat bezala tratatzen zaituen bitartean

Eta horretaz abesten dut

Maitasunak harrapatzen zaitu eta burutik ezin kentzen ibiltzen zara

Ondoren zure kontrako dadoak metatzen ditu

Inoiz irabazi ezin duzun joko batean

Bizitzaren jokoa

Maitasun jokua

Orain arte nirekin zeundela uste nuenean

Esan didazu: 'Maitea gainezka nago'

Esan didazu: 'Denbora libre nahi dut'.

Orain magia joan da

Hain ederra zena urtu egin da

Ezer esan gabe

Ezin dut kantatu

Oroitzapena besterik ez dena

Pena oroitza baino gehiago da

Eta orain magia joan da,

Hain ederra zena desagertu egin da

Sentimenduari eutsita ere ez dago ezer

Laztana orain magia joan da

Ez naiz zurea gogoan mantentzen saiatuko

Nire buruak joaten uzteko esaten dit

Baina nire bihotzak behar zaitu oraindik

Eta ez dago saririk galtzailearentzat

Bakarrik irabazleak hartzen du diru-zorroa

Batzuek diote maitasuna bedeinkazioa dela

Baina niregana madarikazio bihurtu da.

Orain magia joan dela

Orain magia joan da

Sentimenduari eutsita ere ez dago ezer

Laztana orain magia joan da

Ez naiz zurea mantentzen saiatuko

Nire buruak joaten uzteko esaten dit

Baina nire bihotzak behar zaitu oraindik

Abesti bat kantatuko dut

Now that the magic has gone

Orain magia joan denean

Gauean Grazia Galdutako Gizakia

Gaua etorri zenean hazia zen hasieran

Eta hazia gizaki bihurtu zen

Eta izena hartu

Lurra iluna zenean

Ilargia zen ikusiko genuen argi bakarra

Senak eman zion izena deitura edota grazia

Eta hauek errealaren eta fikzioaren arteko etena

When the night has come

Egun, lausotua dagoen muga

Zeren eta, dagoeneko, natura bera itxura besterik ez da

Baita giza natura ere

Gizakia ez baita naturala

Eta

Ez da inoiz naturala izan

Egun, gizadira itzultzearen aldarria alferrikakoa baita

Gizakia ez delako inoiz naturarekiko harreman orekatuetan bizi

Ez delako inoiz bere naturarekiko orekan bizi

Ekonomiaren haziak sortu baitzuen gizakia,

Eta bere grazia.

Eta ekonomiak ez du oreka bilatzen baizik eta irabazia

Merkatua ez baita zuzena eta ez du zuzentasunik bilatzen

Gizakia merkantzia bilakatu baizik

Eta, oreka beharrea, desberdintasunak areagotu

Ustezko gizaki gizatiarragoa ez dagoelako

Eta aldarri hori da elbarri

Magiaz eta erlijioaz gain berreskuratu zuen gizakiak bere natura

Eta galdu bere sena

Baina Merkatua ikusezina da eta harengan sinestun asko dago gizartean

Non galdu den gizakia zena

Ilargia zen ikusiko genuen argi bakarra

Senak eman zion izena deitura edota grazia

Eta hauek errealaren eta fikzioaren arteko etena

When the night has come

Gizaki berri horrek zientziaren neutraltasunarengan dauka sineskeria

eta politikaren neutraltasunarengan fedea

Eta teknologiaren

Eta legeen

Eta medikuntzaren

Eta hezkuntzaren

Neutraltasunarengan sinesten du

Gizaki honek ez ditu jadanik zirri eta zirrararik sumatzen

Zenaren zirriborroa baita

Senaren artoa delako

Bera harroa izanik

Horretan datza bere ondoeza

Dagoeneko gizakiak galdu baitu bere grazia.

Kateak askatu nire bihotzari

Nire bihotzari kateak askatzen dizkiozunean

Maiteko zaitut laztana

Alferrik kezkatzen zara

Utz nazazu libre

Nire ez da maitasun erromantikoa

Rokeroa baizik

Katea ken iezaiozu nire bihotzari

Nirea ez da maitasun platonikoa

Biografikoa baizik

Katea ken iezaiozu nire bihotzari laztana

Unchain My Heart

Maite ez duzuna ahaztu

Aldiro hots egiten dizut telefonoz

Gau beroetan

Morroiren batek esaten di zu ez zaudela etxean

Katea ken iezaiozu nire bihotzari laztana

Katea ken iezaiozu nire bihotzari

Ez zara nitaz kezkatu behar

Adabatuta eduki nauzu zure arropa zaharra moduan

Baina uzten diozu nire maitasunari zure gerrira iristen

Nire bihotzari kateak askatzen dizkiozunean

Sorginduta naukazu

Trantze batean banengo bezala

Badakizu ongi aukera pasatzen uzten

Nire bihotzari kateak askatzen dizkiozunean

Nire bihotzari kateak askatzen ez dizkiozunean

Maila bat igotzen duzu egunero

Izenik gabeko maitasunera igoz

Kexu naiz gau eta egunez

Miserian bizitzen

Nitaz kezkatzen ez zarelako

Nire bihotzari kateak askatzen dizkiozunean

Libreagoa egiten nauen kondena pairatzen dut

Trantze batean banengo bezala geratzen naiz

Badakizu ongi asko aukera pasatzen uzten

Nire bihotzari kateak askatzen dizkiozunean

Gauza sinpleak

Nonbaiteko lasterketan berreskuratu ninduten

Korrika jarraitu nuen

Neure burua galduta

Nire esperantza

Nire fedea

Beti gehiago nahi dudalako

Baino ez dut ezer ikasi

Daukadana benetan behar dudan guztia da

Gauza sinpleak

Preziorik ez daukatenak

Gauza sinpleak

Poza

Bozkarioa

Eta maitasuna

Hori guztia hainbeste aldetatik begiratu dut

Eta bat etorriko zinatekeela espero nuen

Bizitzako gauzarik onenak

Gauza sinpleak dira

Jende guztiak dastatzen ez duena

Ni gaizki ulertzero heldu zinen

Anbizioa eta jakintza nahi nituela ustean

Lagun bakoitzaren

Edota norberaren baitan dauden usteak dira
Lan on bat akaso
Aurrera egitea sikiera
Denbora hartzen da irudikatutakoa eskuratzeko
Gauza sinpleak
Preziorik ez daukatenak
Zure ondoan esnatzea
Mendira igotzeko bideak asmatzea
Gau beroetako deiak
Aitaren oroitzapenak
Adiskideen berotasuna
Desobeditzea
Zure ondoan zahartzea
Joe Cocker gaztea eta agurea
Hori guztia hainbeste aldetatik begiratu dut
Eta bat etorriko zarela espero dut
Bizitzako gauzarik onenak
Gauza sinpleak dira
Bizitzako gauzarik onenak
Gauza sinpleak hain dira ederrak
Mundu hau azkar mugitzen denean
Batzuetan behera
Astiroago ibiltzen heldu daiteke gora
Eta maila bat igotzen dugu egunero
Maitasunera igoz

Non arranoek negar egiten duten
Bizitzaren mendia oso altu baitago

Maitasunean

Hain ederra zara